
Skeppsholmen
Vattenleden
Solenleden
Stenenleden
Månenleden

"Vi är här"
“Hemen gaude” esan nahi du.
Toki bat partekatzen ari gara.
Uhartean ibiltari,
guretzako uharte bat.

Es una art intervention en Skeppsholmen
by Juanma González
3-13 de octubre, 2015

más información

www.juanmagonzalez.com/skeppsholmen

# Hemen gaude

## Vattenleden

URETARANTZ

Uhartea akorde gainean dago pausatua,
zeintzuk itzultzen ez zenaren bidaiaz kantari ari diren,
Untzi sedentarioak bidaia berri baten zain,
urezko bidetatik noiz eramanak izango.

Amaiera, ibiltzen denarentzat,
baltsamoa, sinisten duenarentzat.
Muga, ihesi dabilenarentzat,
hasiera, amets egiten duenarentzat.

Elkartu egiten duen edaria, banandu baino,
Mirari egilea.
Bidaiariarentzako lasaigarria.

Laudatua zeu,
Uharteko berdeen margolaria,

## Solenleden

EGUZKIRANTZ.

Uharteak, ur beroak itsututa, irrikor,
gidari eta adiskide batekin topo egitean.
Harro.Neguaren zain indarberrituz.
Uzkurtuta. Udaberriaren esperoan..

Goizeko lainoaren ostean,
inoiz abandonatuko ez gaituela gogorarazten digu

Eguna jaio eta hil,
uhartea kolore biziz zipriztinduz
hurarekin elkartzearen bila

Laudatua zeu,
ongi etorri adiskide.

## Stenenleden

HARRIRANTZ

Uhartea haitza da.
Uhartea gotorlekua da,
gure munduko pentsamenduen gordailu,
gogoratuak eta gurtuak izan daitezen..

Bere altueratik nagusi,
bidaiari berrien zain.
Topagunea,
ibilbideetako oinatzak..

Betierekoa. Erronkazale.
Badaki suak ez duela
inoiz berarekin akabatuk.

Laudatua zeu,
betiereko bideen markatzailea.

## Månenleden

ILARGIRANTZ

Uhartea esnaldian so,
isladak uretan ehunduz..

Zikloa markatzen duen sorgina,
Etorkizunaz ari zaigu
denboraren letrez.

Argi taupadatsua.

Kanta ugari berari buruz
baina kanpai-hotsak baizik
ez du arreta jartzen,
doanaren agurra entzun nahian.

Laudatua zeu,
izarren ama.